

## B4

## Conpli al baneça daquidan leguez...

Bi ahapaldi hauek B2, B3, B15 eta B17 poemen idazkera eta ahapaldi-egitura berean idatziak dira (tertzeto endekasilaboak, -AA, -BB, -CC, -DD errimarekin), baina ez dugu aurkitu leku egokirik horietako batean ere txertatzeko. Nabarmena da, halere, ez direla ahapaldi berez burujabeak, beste ahapaldi-segida baten parte baino. Ez dakigu, adibidez, zein den *euroen* izenordainaren erreferentea, edo zer den *pauso laz* hura, eta zaila da, hortaz, pasartearen esanahia ulertzea, hitzak eta sintaxia ulertzeko arazorik ez dagoen arren.

<1152v>     [...]  
                   Co]npli al baneça<sup>1</sup> daquidan leguez<sup>2</sup>  
                   euroen<sup>3</sup> arteco apetitua,  
                   batec emun leçaquet<sup>4</sup> abitoa.  
  
                   Bada bere,<sup>5</sup> Jaunac ez nafinela,<sup>6</sup>

<sup>1</sup> *Co]npli al baneça*: ‘bete ahalko banu’; B3: 18 lerrokoa da testuko euskarazko *conpli*- argi bakarra, eta beste behin aurkitu dugu gaztelaniaz (*compliando* A20: 12). Gainerakoetan *cunpli*- erabiltzen da beti, baina hurbilenekoa (idazmolde eta ahapaldi-egitura berean idatzia) hautatu dugu galdutako zatia osatzeko.

*conpli al baneça*-ren azpian *esan banegui* idatzia da. Lazarragak [aditzoina + \**ezan*] eta [partizipioa + *egin*] perifrasiak txandaka erabiltzen ditu baldintzazko protasietan: *onerean irugarren egunean ateraco ditu buruac edetera, çuec socorridu ez badaguiçu, nic esango deusudan manera onetan* (AL: 1153v), *curela ifinico dot estuetan, / baldin da mandamentu au goarda ez badez* (A17: 13-14), *Aitac ezcondu ezpanagui, / neurau ni ezconduco nax sarri* (A19: 1-2), *agan contenpla badeçaçu / gogoaz viocerean, / urteten procuraduco doçu / çaacen costunbrerean* (B5: 75-78).

<sup>2</sup> *daquidan leguez*: Eskuizkribuan bi aldiz dago “aditza + *-n leguez*” egitura (B4: 1, B16: 74), eta gehiagotan, bost bider, “aditza + *-na leguez*” egitura zaharragoa (AL: 1142r, 1151v, A17: 109, B5: 27).

<sup>3</sup> *euroen*: Hemen eta B15: 20 bertso-lerroan aurkitzen dugu *euroen* forma. Gainerakoetan *euren* erabiltzen da beti.

<sup>4</sup> *emun leçaquet*: ‘eman liezadake, emango lidake’.

<sup>5</sup> *Bada bere*: ‘hala ere’. Honela ulertu dugu ahapaldia: “Hala ere, Jaunak hala nahi badu, ez nazala egoera latz hartan ipini. Barkatu, ez nago ni sasoian”.

<sup>6</sup> *ez nafinela*: ‘ipin ez nazala’; *ifini* aditzaren NOR-NORK jusibo trinkoa. Jusibozko forma hauek ez ezeztapenezko partikularekin baizik ez daitezke ager, *b-* aurrizkidun formek beti *ze* partikula hartzen dutelarik: *Jaunorrec ez dindala ondasunic* (A17: 65) vs *Oy oni luce derechanori / ce bego ene ustean* (A24: 119-120). Ikusi halaber *Hora il daguien mendian Guiçona idoro ez didila* (Garibai 139-52).

servidu bada,<sup>7</sup> ni pauso laz artan.

5

Parcatu, ez nago ni tenporatan.<sup>8</sup>

[...]

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Bi ahapaldi hauek orrialdearen ezkerreko alboan idatzita daude, trebesean. **1** Conpli] lerroartean idatzita dago. Lerro nagusian, tatxatuta dago [e]san. Orri-muturra higituta dagoenez, ez dira *co-* eta *e-* ondo irakurtzen. || baneça] lerroartean idatzita dago -ça. Lerro nagusian, tatxatuta dago -gui [banegui]. **3** batec] honen aurrean tatxatuta dago *asa*.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B4 – Conpli al baneça daquidan leguez...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

*Ifini* aditzaren forma trinkoei dagokienez, hamaika aurkitu ditugu Lazarragaren eskuizkribuan: *efinçu* (A16: 59), *jafindaçu* (A17: 44, B16: 34), *ce nafinçu* (A17: 60), *dafinquet* (A24: 27), *ez difinçuen* (A27: 4), *badafinçu* (A27: 41), *ifinçu* (A28: 172), *dafinela* (A28: 175), *nafinçu* (B3: 70), *nafinela* (B4: 4), *ce efinçu* (B5: 83).

<sup>7</sup> *servidu bada*: ‘nahi badu’; cf. *DAut*, s.v. *servirse*: “Agradarse de alguna cosa, quererla o admitirla con gusto. Úsase en el estilo cortesano, quando se suplica o pide a alguno que execute algo”. Eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu ditugu halako esamoldeak: *servidu içaten liçala* (AL: 1142v), *çu baçarade servicen* (AL: 1144v), *servicen bada* (AL: 1147r, A3: 25), *servidu jaguin artean* (A24: 136), *servidu bada* (B4: 5), *çu baçarade serbietan* (B16: 91).

Gaztelaniaz forma pasiboak ere erabiltzen dira: “...a Dios le diese lo que tanto deseaba. **El cual fue servido**, vistos sus continuos ruegos y oraciones, que [...] se hiciese preñada” (Jorge de Montemayor, 1558, *Los siete libros de la Diana*); halakoen kalkoa da, ziur aski, Lazarragaren *serbidu izan*.

<sup>8</sup> *tenporatan*: ‘sasoi onean’; cf. *DAut* (s.v. *tiempo*): “*En tiempo*. Modo adverbial, que vale *en ocasión*” (*En ocasión* esapidea, berriz, ez da agertzen). Horren euskarazko ordaina bi bider dago eskuizkribuan: *denporatan* (A19: 48), *tenporatan* (B4: 6). Apur bat desberdina baina funtsean bera da beste hau: *ayn denporatan* (B20: 26).



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago